

ENPLEGUA SUSTATZEKO PROGRAMA FABRIKAZIO MEKANIKO ETA SOLDADURA ARLOAN

PROIEKTUAREN HELBURUA

Eibarko langabeen edo lan prekarioa dutenen laneratzeko gaitasuna hobetzea:

- Formakuntza: (MF0091) Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa.
- Formakuntza: Eskorga jasotzaileak gidatzea.
- Formakuntza: Elektrodo estali bidezko soldadura.
- Formakuntza: Gaitasun pertsonalak.
- Praktiak enpresan.
- Laneratze-prozesuan laguntza.

BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Eibarren erroldatua egotea.
- Langabezia-egoeran egotea edo lan prekarioa* edukitzea eta Lanbide-n izena emanda egotea.
- Gaztelaniaren ahozko nahiz idatzizko ulermen-maila egokia izatea.
- Positiboki baloratuko da Fabrikazio Mekaniko nahiz Soldadura arloan esperientzia profesionala edota ezagutzak izatea.

** Honako hauek hartzen dira lan prekariotzat: iraupen jakineko kontratuak, urtebetetik beherako iraupena dutenak, lanaldi partzialeko kontratuak eta 1.000 eurotik beherako hileko ordainsari garbia duten kontratuak, aparteko ordainsarien hainbanaketa barne.*

ESKAERA EGITEKO EPEA:

2023ko martxoaren 9tik 24ra arte (biak barne).

TRAMITATZEKO BIDEAK:

- **Presentziala:** [PEGORA \(Herritarren Zerbitzurako Bulegoa\)](#) Untzaga plaza 1. Beheko solairua. **Goian adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsonak edo bere ordezkari legalak joan beharko du. Programan parte hartzeko eskaera aurrez aurre beteko dute PEGORako langileek.** Itxaronaldiak saihesteko, hitzordua eska daiteke PEGORAn. Hitzordua nola eskatu:
 - Udal webgunearen bitartez: [hitzordua eskatu PEGORAn](#).
 - Telefonoz: 943 70 84 00 / 010.
- **Elektronikoa:** Udalaren www.eibar.eus webgunearen bidez. Izapidea elektronikoki egiteko, ziurtagiri digital bat eduki behar da (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.)

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- a) Eskatzailearen NANA edo horren balio bereko beste dokumenturen bat.
- b) LANBIDEk egindako txostena, langabe gisa inskribatuta egondako aldiei buruzkoa.
- c) Lan-bizitza.

- d) Curriculum vitae eguneratua.
- e) Legezko ordezkapenaren kasuan, legezko ordezkariaren NANA edo balio bereko dokumentua, eta ordezkariaren egiaztapena, dokumentu bidez. Egiaztapena zuzenbidean bidezkoa den edozein bide erabiliz egin daiteke (notario-ahalordez, eskritura bidez...). Ordezkapena Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan erregistratuta egonez gero, ez da dokumentazioa aurkeztu behar.

PROGRAMAREN GARAPENA

- 1. PARTE-HARTZAILEAK AUKERATZEA.
- 2. FORMAKUNTZA.
 - a. Konpetentzia espezifikoak; Txirbil-harroketaren bidezko mekanizazioan (MF0091) (210 ordu).
 - b. Konpetentzia espezifikoak; Eskorga jasotzaileak gidatzea (30 ordu).
 - c. Konpetentzia espezifikoak; Elektrodo estali bidezko soldadura (60 ordu).
 - d. Garapen pertsonaleko konpetentziak (16 ordu).
- 3. PRAKTIKAK ENPRESAN (gutxienez 60 ordu).
- 4. LANERATZE-PROZESUAN LAGUNTZA.